

Apirilaren 7an
GARIZUMAKO 5. IGANDEA

Agurra

Bihotz-berritzera dei egiten digun Jesu Kristoren grazia eta maitasuna zuekin.

Sarrerako oharpena

Garizumako azken igandea dugu gaurkoa, datorren igandean hasiko baitugu, Erramuekin, gure fedearen ASTE NAGUSIA. Jesus, Jerusalemera gerturatzen ari da eta berarekin darama Eliza osoa, historiaren une erabakigarria: Bera da historiaren Jauna eta pazko misteriora gerturatzen ari da, bidean salbamena ereinez.

Goazen gu ere Jesusekin. Elkar onartuz, inor gaitzetsi gabe, denean maitasuna eta bihotz ona agertuz.

Damu-otoitza

Gure fedearen misterioa ospatzera bildu gara. Eska dezagun lehenik barkamena eta onar dezagun Jainkoaren erruki berritzailea.

—Jesus Jauna, gure sufrimenduetan samintzen zaren Senidea: erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, gu bizi-araziz goresia zaren Jainko-Semea: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, gu heriotzatik ateratzen gaituzun Piztuera eta Bizia: Erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizitzara..

Otoitza

**Jainko gure Jauna,
zure Semeak, mundua maite zuelako
eta mundua salbatzeagatik,
heriotzara eman zuen bere burua;
egizu, guk ere maitasun bera izan dezagula beti.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.**

Hitzaren liturgiari oharpena

Harri bat, bi, hiru... harri asko botatzeko gai gara besteren hutsegiteen gainera. Jainkoaren Hitzak gure bihotzaren erdian barkamenaren "lehen-harria" jartzen du, Erreinoa eraikitzeko gai izan gaitezten.

Lehenengo irakurgaia (Is 43, 16-21)

Isaias profetaren liburutik

Honela mintzo da Jauna, itsasoan bide bat zabaldu zuena, ur handietan bideska bat egin zuena; gurdi eta zaldi, guda talde eta buruzagi eraman zituena; erori baitira denak, ez jaikitzeke, itzali dira, bukatu den metxa bezala: «Ez oroitu lehengo gauzarik, ez gogoan hartu aspaldikorik. Begira, gauza berriak egiten ari naiz, hasi dira; ez al duzue ikusten? Bide bat irekiko dut basoan; ibaiak basamortuan. Basapiztiak, otsoak eta egalperrek goresiko naute; errekek sortuko bait ditut basamortuan eta ibaiak basoan, ase dadin nire herri aukeratuaren egarria: nire gorespenak kantatzeko Nik eratu dudan herriaren egarria».

Erantzun-salmoa (*Sal* 125, 1-2ab. 2cd-3. 4-5. 6)

As - ko la - gun - du di - gu - zu, Jau - na. Hau -
xen da po - za guk dau - ka - gu - na!

Jaunak Siongo atxilotuak erakartzean,
bageunden amets antzean.

Orduan bete zitzaigun ahoa parrez,
gure mingaina gorzarrez. R/.

Atzerrietan, orduan, esan zuten:
«Jauna handikiro jokatua dute.»
Gurekin handikiro jokatu da Jauna:
Hau da poza daukaguna! R/.

Bihur ezazu, Jauna, gure zoria,
Negebeko erreka-urak bezala.
Malkoz erein bazuten,
pozez bilduko dute. R/.

Haruntzakoan han zihoazen negarrez,
ereiteko gari-zorroa eramanez.
Pozik etorriko dira honuntzakoan,
gari-balak eskuan. R/.

Bigarren irakurgaia (*Flp* 3, 8-14)

San Paulo Apostoluak Filipotarrei

Senideok: Dena galeratzat daukat, neurrigabeko ondasun honen aldean: Jesu Kristo nire Jaunaren ezaguera. Harengatik dena galdu nuen, eta dena simaurtzat daukat, Kristo irabaztekotan eta Harengan bizitzekotan; ez Legetik datorkidan neure zuzentasunez, Kristorengan sinestetik datorkidanez baizik. Jaungoikoarengandik bait dator zuzentasuna hau, eta sinesmena du oinarri. Beraz, Kristo ezagutu nahi dut, eta Haren biztueraren indarra; Haren lagun izan nahi dut nekeetan, eta Beraren antzeko heriotzan, egunen batean hilen artetik biztuko naizen itxaropenez.

Ez dut esaten saria iritsi dudanik, edota lasterkaldia bukatu dudanik: nik neure lasterkaldian jarraitzen dut. Eta, Kristo Jesusek niretzat iritsi duelako, saria eskuetan baldin badut ere, ene senideok, oraindik saria iritsi ez banu bezala hartzen dut nik neure burua. Gauza baten atzetik bakarrik nabil: atzean gelditu dena ahazturik, eta aurrean dagoena bilatuz, lasterka noa helburura, saria iristeko; sari horretara deitzen bait du Jaungoikoak goitik, Kristo Jesusen bitartez.

Ebanjelio-aurreko gorapena (Jl 12, 12ab. 13c)

Ain-tza Je- sus, Zu - ri be - ti. Zu za-ra gu - re ar - gi.

Begira zer dioen Jaun guztiz ahaltsuak:
Itzul zaitezte Niregana bihotz-bihotzez;
bihozbera eta errukitsua bainaiz. R/.

Ebanjelioa (Jn 8, 1-11)

Homiliarako argibideak

Nik ere ez zaitut gaitzesten

Barkamenaren beharraz hitz egiten dugunean, ez dugu pentsatu behar Ebanjelioarekin bat ez datorren bizimodua dutela eta Elizatik eta moral orotik urrun daudela uste dugun pertsonengan bakarrik. Kristau bizitzara itzultzeko gonbita berezia dute horiek, noski. Azken urte hauek oso latzak izan dira Elizarentzat berarentzat, ordea; izan ere, hierarkiako kideen artean ikusi da bekatua. Adingabeen aurkako gehiegikeriaren bekatu ikaragarria, eta hori estaltzeaz ari gara. Apaltasunez, **Kristoren gurutzearen aurrean** jarri behar dugu **guztiok, bekatariok, berdinok**, barkamena jasotzeko. Giza errealitatea den heinean, bekatarien eliza da Eliza; errealitate jainkotiarra den heinean, berriz, Eliza santua. Garizuman aurrera goazenez eta Aste Santua hurbil dugunez, ezin dugu aukera hau galdu, denok behar baitugu Jainko gure Aitaren maitekorraren errukia.

Adulterioan ari den emakumeak ezin du bere bekatua ukatu, eta Jesusek ere ez du ukatzen (Jn 8,1-11). Jesusen aurkariak adulteroak zigortzen dituen Moisesen Legeak ezarritakoa aplikatzeko eskatzen dute, nahiz eta ez jakin zergatik gizona ere ez duten zigortzen, alderik ahulena bakarrik baizik. Jesusek emakumea babesten du (gizonaren bizia ere babestuko zukeen) eta **heriotza zigorraren aurka** agertuko da, irmo.

Jesusek argudioek erakusten dute ez dagoela bekatuik ez duenik, eta, beraz, inork ezin duela beste bat zigortu, zentzatzeko aukera eman gabe. **Pertsona bere krimenarekin ez identifikatzean** datza. Pertsona ongirantz bideratuta dago, eta zentzatzeko gaitasuna dauka. Beste aukera bat eman behar da beti. Euren burua epaitzat hartu zutenek ere bazuten bekatuik, noski, baina ez zuten euren

burua salbaziorik gabeko bekataritzat jotzen; aitzitik, euren bizitza zuzentzeko aukera espero zuten haiek ere.

Pertsonaren bizitza eraldatu behar du barkamenak, ordea. Horregatik eskatzen dio emakumeari ez egiteko berriro bekatuak. Kristo Jesusengan dagoen Aitaren barkamen eskaintza hori eskuratu nahi dugu guk Garizuma honetan, gure bizitza aldatzeko eta bizitza berri bati ekiteko (Is 43, 16-21). Bekatariak ditu Elizak, baina ezin dio uko egin munduko eta Elizako bertako bekatua salatzeari. Gizakien eta Jainkoaren, zein gizakien arteko adiskidetzaren aldeko sakramentua izatea da bere misioa.

Pablaren adibidea lagungarri izan dakiguke bide horretan (Filp 3,8-14). Pablok, Kristoren etsai denak, barkamena ez ezik haren mandataria izateko deia sentitzen du. **Kristoren graziaz** iritsi zaio barkamena, eta ez berak Legearen arabera egindako ekintza onen ondorioz (Legearen arabera, Jainkoaren gogoko ekintza izango litzateke kristauak akabatzea). Hark bezala, bekatuzko gure iragana ahaztu behar dugu, Kristoren helmugarantz iristen saiatzeko. Horrela lortuko dugu saria: bere pasioan lagundu ondoren haren piztueran parte hartzea. Eukaristiak lagun dieazgula Jaunaren barkamena lortzen. Adiskidetze sakramentura ere hurbil gaitezen, garai honetan, Jesusek bere ministroen bitartez barkatuko digula bermatzeko. Eskatzen diogun guztietan barkatzen digu Jaunak, baina hori egiaztatzen digun zeinuren bat ikusteko beharra dugu batzuetan.

Jainkoaren herriaren otoitza

Egigun otoitza, senide maiteok, eta eska dezagun Jaunaren errukia, bere herriarekiko onginahiz beterik gure eskariak entzun ditzan:

Erantzuna: Kyrie, eleison!

Ky-ri-e, Ky-ri-e, e - lei-son! Ky-ri-e, Ky -ri-e, e - lei - son!

—Bere herria biziartzeko bere burua heriotzara eman zuen munduaren Salbatzaileak, Eliza gaitz guztitik libra dezan. Egigun otoitz. R/.

—Gurutztatu zutenen alde gurutzean otoitz egin zuen munduaren Salbatzaileak, bekatarien alde Aitaren aurrean bitarteko egin dezan. Egigun otoitz. R/.

—Gurutzean sufrimendua eta ezina pairatu zituen munduaren Salbatzaileak, sufritzen duten guztiakin erruki izanez indarra eta laguntza eman diezaien bere minetan. Egigun otoitz. R/.

—Elizbarrutiko misioen alde: lurralde behartsuetan gu guztion izenean Jesusen berri ona zabaltzen ari diren gure misioen alde, hemendik haiei laguntzeko ahalegina egiten dugunon alde. Misiolaritza Elizaren jarrera ezinbestekoa dela jabetu gaitzen. Egigun otoitz. R/.

—Egun hauetan Bere Gurutze-bidea gurtu eta oroitzeko prestatzen garenok, munduaren Salbatzaileak bere piztueraren garrez indaberri gaitzan. Egigun otoitz. R/.

Kristogan mundua berritu nahi duzun Jainko ongilea, ikus gure ezinak eta Zure Semea mundua salbatzera bidali zenuenez, eta ez kondenatzera, entzun gure otoitzak eta sorrarazi ezazu gure bihotzetan bizi-gogoia eta alaitasuna. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa

Egokia da, gaur, 4. Eukaristi Otoitza erabiltzea, bere prefazioarekin, Jainkoak bere herriarekin duen salbamen-harremana, era berezian gogora ekartzen duelako.

Jaunartze-ondorengo otoitza

**Jainko ahalguztiduna, egizu,
orain Kristoren gorputz-odolekin bat egin dugunez gero,
beti Haren gorputzeko atal izan gaitzela.
Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.**

Bukaerako oharpena

Datorren igandean hemen izango gara Erramu Igandearekin Aste Santuari hasiera emateko. Aukera ederra izango dugu Jesusekin estuago bat egiteko.

Herriaren gaineko otoitza eta bedeinkapena

Jauna zuekin. R/. Eta zure espirituarekin.

Makur zaitezte, Jaunaren bedeinkapena hartzeko.

(Eskuak herriaren gain zabalik bedeinkapena esango du:)

**Bedeinka ezazu, Jauna,
zure errukia itxaro duen zeure herria,
eta emaiozu bihotz zabalez Zuk argiturik eskatzen duena.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.** R/. Amen.

**Bedeinka zaitzatela Jainko ahalguztidunak:
Aitak, eta Semeak, + eta Espiritu Santuak.** R/. Amen.

Zoazte Jaunaren bakean. R/. Eskerrak Jainkoari.

Herriaren gaineko otoitzaren ordeztu, erabil daiteke Bedeinkapen Nagusia (liburuxka honetan, 6. orrialdean).